Fundazioak nortasun juridiko berezkoa eta independentea du, noiztik eta eraketa eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatzen denetik, eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa izango ditu. Mugapen bakarrak izango dira eratzailleek eraketa ekitaldian eta estatutu hauetan agertutako borondatean ezarritakoak, eta nolana ere, aplikagarri zaizkion legezko xedapenek ezarritakoak, bereziki, xedapen hauek: 1994ko ekainaren 17ko 12/1994 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa, eta 2007ko ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duena.

Beraz, alde batera utzita Babeslaritzari egin beharreko jakinarazpenak, aukera izango du era guztietako ondasun higigarriak eta higiezinak nahiz eskubideak eskuratu, artatu, eduki, xedatu, edozein eraren bidez besterendu, eta zamatzeko, era guztietako egintzak edo kontratuak egiteko, maileguak jaso eta itzultzeko, eta transakzioa egin eta gobernu nahiz epaiketa bideetara jotzeko, era guztietako egintzak eta salbuespenak egikaritzuz epaitegi, auzitegi eta erakunde publiko nahiz pribatuetan, antolamendu juridikoak ezarritakoaren arabera.

3. artikulua.- Fundazioaren helburuak

1. **Fundación Benedictinos de Lazkao - Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren** xedea da Euskal Herriko Ondarea aztertu, zabaldu, eta ezagutzea, eta zehatzago, Lazkaoko Beneditarren Artxiboko Euskal Fondoko funtsak zuzendu, kudeatu, mantendu eta sustatzea. Fondoa osorik hartuta, eta hura gordetzen egindako lanaren omenez eta lan hori aitortuz, beti Fondoari lotuta, izenez **Lazkaoko Beneditarren Fondoa** deituko da.

2. Hori lortzeko, bada, helburu hauek jarri dira:



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 7448217

- a) Lazkaon dagoen Beneditarren Artxiboko Euskal Fondoa zabaltzeko eta aberasteko plana garatzea.
- b) Kultura adierazpenak, ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak, liburuen argitalpenak, katalogoak, eta antzeko beste ekintza batzuk sustatzea edo gauzatzea helburu duten beste ekintza osagarri batzuk egitea.
- c) Gizarte ekimenak Fundazioaren ekintzetan parte hartzea eta haiek finantzatzea sustatuko duen babes plan bat garatzea.
- d) Bere dituen helburuak gauzatzeko balio dezakeen beste edozein.
- e) Funtsak gordailutzearen garapena bultzatzea eta sustatzea.

Fundazioaren helburuak berak egokien iritzitako moduan garatu ahal izango ditu Fundazioak, beste erakunde edo antolakuntza batzuetan partaide izanaz bane, eraketa gutunean, estatutu hauetan eta, edonola ere, legeetan jarritako mugapenak besterik gabe.

4. artikulua.- Egoitza

Fundazioak Beneditarren Komentuan izango du egoitza, helbide honetan: Ellosegi kalea 27, Lazkao – 20210 (Gipuzkoa).

Patronatuak egoitzaren helbidea aldatu ahal izango du, baina Fundazioak nahitaez Gipuzkoan kokatua egon beharko du, ahal dela Lazkaon. Era berean, Fundazioaren helburuak betetzeko, legokiokeenaren arabera, beharrezko liratekeen establezimendu, ordezkaritza edota bulegoen kokalekua zehazteko eskumenak emango zaizkio Patronatuari.

5. artikulua.- Lurralde esparrua

Fundazioak Euskal Herrian egingo ditu batik bat bere jarduerak.

6. artikulua.- Onuradunak

1. Fundazioak bere helburua betetzeko egingo dituen ekimenen onura Lazkaoko Beneditarren Artxiboko Euskal Fondoko funtsak gorde eta zabaltzea lehentasunezko zatitza jotzen duten pertsona guztiei iritsiko zaie, lehenbizi, eta Euskal Herriko herritar guztiei eta bisitan etorriko diren guztiei, ondoren.
2. Fundazioak, interes orokorreko bere helburuen baitan, objektibotasun eta inpartzialtasun irizpideekin aritu beharko du bere onuradunak aukeratzekoan, inolako bereizkeriarik gabe. Oro har, Fundazioaren jardueren onuradun izan ahalko du haiei buruz zuzeneko jakin-mina agertzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikoa.
3. Fundazioak, eskaintzen dituen zerbitzuengatik, bere onuradunei diru kopururen bat ordaintzeko eskatzen dienean, onura jasoko dutenen aukeraketa, dagokion diru kopuru hori ordaintzearen arabera soilik egin beharko da. Era berean, Fundazioaren izaeraren beraren ondorioz, onuradunen kopurua mugatu beharra sortzen bada, horien aukeraketa eta zehaztapena Fundazioaren Patronatuak egingo ditu, horretarako kontuan izanik partaide izan nahi dutenen merezimendu, behar, ahalmen ekonomiko eta aprobetxamendu aukerak, edota ezaugarri objektibo batzuen arabera.



7. artikulua.- Iragartzea

Fundazioaren onuradun izan daitezkeenek haren jardueren berri izan dezaten, Patronatuak behar adina iragarriko ditu bere helburu eta jarduerak.

II. TITULUA. FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEAK

8. artikulua.- Atxikitako laguntzaileak

Fundazioaren eraketa eskritura eman ondoren, haren helburuak lortzen lagundu dezaketen pertsona fisiko edo juridikoak atxiki ahal izango zaizkio Fundazioari, atxikitako laguntzaile moduan.

Aipatutako izaerarekin atxikitzeko eskaerak Patronatuaren kideen gehiengo absolutuak onartu beharko ditu, eta Patronatu horrek berak zehaztuko du izangalek, hala badagokio, ordaindu beharko duten diru ekarpena. Aipatutako laguntzaile horiek Patronatuan parte hartu ahal izango dute, erakundeak aho batez hala erabakitzen badu. Nolanahi ere, laguntzaileek ahotsa bai baina ez dute botorik izango.

9. artikulua.- Ohorezko laguntzaileak

Patronatuak ohorezko laguntzaile izendatu ahal izango ditu Fundazioaren helburua lortzeko lan nabarmena egin duten pertsona fisiko edo juridikoak.

10. artikulua.- Araubide juridikoa

1. Laguntzaileek, nolanahi ere, aldizka-aldizka Fundazioaren jardueren berri jasotzeko eskubidea izango dute, bai eta Patronatuak berariaz emango dien beste edozein eskumen ere.
2. Laguntzaile izaera arrazoi hauengatik galduko da:
 - a. Kideak berak hala eskatu duelako.
 - b. Patronatuak hala erabaki duelako (arrazoitut egin beharko da).
 - c. Konkurtsoagatik edo desegiteagatik.
 - d. Legez aurreikusitako beste edozein arrazoi gertatzen denean.

III. TITULUA. FUNDAZIOAREN GIDARITZA

11. artikulua.- Patronatua

3. Patronatua da Fundazioaren gidaritzako, administrazioko eta ordezkotzako organo gorena, eta bere kontura izango dira Fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezko diren kudeaketaren zuzendaritza eta kontrolako eskumen guztiak.
4. Zehatz esanda, Patronatuari dagozkio:
 - a) Fundazioaren helburuak bete daitezela zaintzea.
 - b) Ekonomia eta finantza baliabide guztien administrazioa, edozein delarik ere baliabide horien jatorria.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 7446218

- c) Inbentarioa, egoera balantzeara, emaitzen kontua, aurreko ekitaldiaren memoria eta ekitaldi horretako diru sarrera eta irteeren aurrekontuaren likidazioa onartzea.
- d) Hurrengo ekitaldirako diru sarrera eta gastuen aurrekontua onartzea, bai eta hura azaltzeko memoria ere.
- e) Barne jarduerarako arauak onartzea, hala beharko balitz.
- f) Ordezko batzordeak sortzea, haien kideak izendatzea eta haien eskumenak zehaztea.
- g) Zuzendaritza karguak, kargu exekutiboak eta aholkulariak izendatzea, bai eta gainerako teknikariak, administrariak, lan itunpekoak eta menpekoak kontratatzea, estatutu hauetako 18. artikuluan xedatua dagoenaren arabera.
- h) Fundazioaren helburuak ahalik eta ondoen betetzeak eskatuko lituzkeen era guztietako egintza eta kontratuak gauzatu eta onartzea, izaera zibilekoak, merkataritzakoak, lan arlokoak, administrazio arlokoak nahiz bestelakoak izan.
- i) Dagozkion proposamenak egin, goragoko maila bateko erabakia beharko luketen gaitan, eskumena luketen erakundeei.
- j) Enpresa, entitate, organismo edo partikularrek, funtsak ekarriz eta lankidetzaz hitzarmenak eginez, kualifikatutako pertsonalaren heziketarako eta lankidetzaz teknikorako programetan parte har dezatela bultzatu.
- k) Oinordetzak, legatuak edo dohaintzak onartu edo ezetsi, Fundazioarentzat komenigarri irudituko balitzaizkio, eta horien berri eman Babeslaritzari.
- l) Fundazioaren estatutuak aldatu, eratzailen nahia hobeto betetzeko beharrezkoa balitz.

12. artikulua.- Osaketa eta Iraupena

- 1. Fundazioaren Patronatua gutxienez sei kidek eta gehienez hamabik osatuko dute.
- 2. Pertsona fisiko zein juridikoak izan ahalko dira Patronatuaren kide. Pertsona fisikoek jarduteko ahalmen osoa izan beharko dute eta ezingo dute kargu publikoa betetzeko ezgaituak egon. Pertsona juridikoen izenean pertsona fisiko batek aritu beharko du Patronatuan.
- 3. Patronatukide kargua pertsona fisiko bati ematen zaionean, horrek berorrek bete beharko du, hau da, ezingo da beste batengan utzi. Hala ere, kargu hori kargu publiko edo pribatu baten titularrari ematen zaionean, horrek pertsona bat izendatu ahal izango du bere izenean aritzeko.
- 4. Patronatuaren kideak doan arituko dira beren karguan. Dena dela, beren zereginak burutzeak sortuko dizkien gastuak ordaindu ahal izango zaizkie, behar bezala arrazoitu ondoren.
- 5. Patronatuaren kideek ezingo dute kontraturik egin Fundazioarekin, ez beren izenean ez hirugarren batzuen izenean ere, Babeslaritzak hartarako baimena eman ezean.

13. artikulua.- Osaketa

- 1. Fundazioaren Patronatuaren kide ondorengo hauek izango dira, hasiera batean:
 - a. Gipuzkoako Foru Aldundia. Pertsona fisiko batek izango du horren ordezkotza, 1994ko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 11.3 artikuluan xedatua dagoenaren arabera.



- b. Lazkaoko Udala. Pertsona fisiko batek izango du horren ordezkotza, 1994ko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 11.3 artikuluan xedatua dagoenaren arabera.
 - c. Lazkaoko Beneditar elkarteak. Pertsona fisiko batek izango du horren ordezkotza, 1994ko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 11.3 artikuluan xedatua dagoenaren arabera.
Lazkaoko Beneditar elkarteak Fundazioaren Patronatua ordezkatua izateko eskubidea galduko du, baldin eta Lazkaoko herrian presentzia pertsonal iraunkorra izateari uzten badio.
 - d. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lazkaoko Udalak, eta Lazkaoko Aita Beneditarren Komunitateak, bakoitzak patronatukide bana izendatu ahal izango du.
2. Horrez gain, Patronatuak, estatutu hauetako 22.3 artikuluan eskatzen zaion aldeko botoarekin, patronatukide izendatu ahal izango ditu Fundazioari diru ekarpen esanguratsuak egiten dizkieten pertsona fisiko edo juridikoak.
 3. Patronatukide karguan epemugarik gabe arituko dira 13.1. artikuluko a., b. eta c. ataletan adierazi diren patronatukideak, eta lau urteko epean gainerako kideak. Azken horiek, hala ere, Patronatuak berriro berrautatu ahal izango ditu, epealdi beretarako, inolako mugarik gabe.
 4. Patronatukideek beren karguak utziko dituzte legeak aurreikusitako kasuetan eta bere karguetatik kenduak izan ahalko dira estatutu hauetako 22.3. artikuluan aurreikusitako aldeko botoarekin. Hala ere, Patronatuak ezingo die kargua utzarazi azaldu berri den 13.1. artikuluan adierazitako patronatukideei, izendatu zituenak berak utzarazi beharko baitie kargua.

14. artikulua.- Fundazioaren lehendakaria

1. Fundazioaren lehendakaritza Lazkaoko Beneditar elkarteak ordezkatzeko duen pertsona fisikoak beteko du, patronatukide izaeran, estatutu hauetako 13.1.c artikuluko dioenaren arabera. Lazkaoko Beneditar elkarteak ordezkatzeko Fundazioaren lehendakaritza beteko duen pertsona fisikoak, dena den, Lazkaoko herrian izan beharko du bizilekua.
2. Patronatuko lehendakariak, zeinak agintealdi mugagabea izango baitu, gobernu organo horren ordezkotza gorena izango du bere gain. Fundazioaren ordezkari izango da Patronatuaren eta Fundazioaren organoen erabakietatik sortutako egintza eta kontratu guztietan, bai eta aurkez daitezkeen gainerako auzi, espediente, kontu administratibo, judizial eta estrajudizialean ere, eta prokuradore eta abokatuei pleitoetarako ahalorde orokorrak emateko eskumena izango du.

15. artikulua.- Fundazioaren lehendakariordetza

1. Lehendakariordetza Lazkaoko Udalak beteko du nahitaez, patronatukide izaeran, estatutu hauetako 13.1.b artikuluko dioenaren arabera.
2. Lehendakariordea lehendakariaren ordezkari arituko da azken hori gaixo edo kanpoan denean.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 7418219

16. artikulua.- Idazkaria

Patronatuak idazkari bat izendatuko du, bere kideen artetik edo kanpotik. Estatutu hauek ematen dizkioten zereginenez gain, dagozkion aktá liburuen arreta izan eta zaindu beharko ditu, eta Patronatuak hartutako erabakien ziurtagiriak eman, lehendakariaren oniritziarekin.

17. artikulua.- Diruzaina

Patronatuak diruzaina izendatu ahal izango du, egoki irizten badio, bere kideen artetik edo kanpotik, eta Patronatuak agindutako zereginak izango ditu.

Diruzainari agindu dakizkiokeen zereginak hauek dira:

- a) Fundazioaren funtsak bildu eta zaintzea.
- b) Diru sarrera eta gastuen balantzea aurkeztu eta sinatzea.
- c) Inbentario, kontu eta aurrekontuen liburuak eta eguneroko liburua eramatea.

18. artikulua.- Fundazioarentzat lan egingo duten langileak

Patronatuak, era berean, gerentzia edo kudeaketa burutzea edota Fundazioaren izenean beste hainbat jarduera egitea gobernu organoko kideren bati edota hirugarren pertsona batzuei eman ahal izango die, egin behar dituzten lanei egokitutako ordainsariarekin.

19. artikulua.- Bilerak eta bileretarako deiak

1. Lehendakariak Patronatuaren bilera deituko du, egoki irizten dion guztian, bere kabuz edota gutxienez bi kidek elkarrekin egindako eskariari erantzunez. Edonola ere, Patronatua gutxienez behin elkartuko da lehenengo sei hilekoan, azken ekitaldiko kontuak onartzeko, eta beste behin, bigarren sei hilekoan, hurrengo ekitaldiko Aurrekontua onartzeko.
2. Bileretarako deiak idazkariak bidaliko ditu, lehendakariak hala aginduta, patronatukide bakoitzari idatziz egindako jakinarazpenaren bidez (postaz, telekopiaz edo posta elektronikoz), gutxienez 10 egun aurretik, betiere bileraren eguna, ordua eta lekua adierazita, eta eguneko gai zerrenda zehaztuta.
3. Patronatuaren bileregara horrek berariaz baimendutako edozeinek bertaratu ahal izango du, eta bilera horietan egiten diren deliberazio guztietan parte hartu, nahiz eta erabakiak hartzerakoan ez duen boto eskubiderik izango.

20. artikulua.- Eraketa

1. Patronatua balioz eratutzat emango da lehen deialdian, bilerara, bere kabuz edo bestek ordezkatuta, une bakoitzean dauden kideen erdia gehi bat bertaraten direnean.
2. Aurreko paragrafoan adierazi den quoruma lortzen ez bada, Patronatua lehenengo deialdirako jarritako ordua baino ordu erdi bat geroago elkartuko da, eta bigarren bilera



horretarako aski izango da haren kideen herena bertaratzea, betiere bertan baldin badira Fundazioaren lehendakaria eta idazkaria.

3. Aurreko paragrafoetan adierazi denaren kalterik gabe, Patronatua balioz eratzat joko da, aurrez deitu beharrik gabe, haren kide guztiak bileran direnean eta aho batez onartzen badute bilera egitea, baita eguneko gai zerrenda ere.

21. artikulua.- Eskuordetzeak, ahalordetzeak eta ordezeko batzordeak

1. Patronatuak bere kide batengan edo batzuegan eskuordetu ahal izango ditu bere ahalmen batzuk edo guztiak, salbuespen hauekin: kontuak eta aurrekontuak onartzea, ohiko kudeaketa gainditzten duten egintzak edota Babeslaritzaren baimena behar dutenak.
2. Aurreko paragrafoan adierazi diren salbuespenekin, Patronatuak **Ordezko Batzordeak eta Eragileak** eratu ahal izango ditu, egoera bakoitzean zehaztuko diren ahalmenekin, bai eta eskudun orokor edo bereziak izendatu, funtzio mankomunatu edo solidarioekin.
3. Eskuordetze eta ahalordetze orokorrak, pleitoetarako izan ezean, eta haiek kentzea, Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira.

22. artikulua.- Erabakiak hartzeko modua.

1. Erabakiak botoen gehiengoaren bidez hartuko dira, hurrengo 2. eta 3. ataletan aurreikusitako salbuespenekin, eta legeek ezartzen dituzten salbuespenekin.
2. Patronatukideek aho batez erabakiko dute egoitza soziala aldatzea, 4. artikuluan adierazten den arabera.
3. Bertaratutakoen bi herenen botoa beharko da, barne hartuta nahitaez 13.1 artikuluko a., b., eta c. ataletan aipatutako patronatukideek alde emandako botoa, ondorengo erabakiak hartzeko:
 - a) Estatutuak aldatzeko.
 - b) Fundazioaren bat-egiteak edo amaitzea egiteko.
 - c) Patronatukide berriak izendatzeko eta haiek kargutik kentzeko, estatutu hauetako 12. artikuluan arautzen den moduan.
 - d) Fundazioaren Jarduketa Plana eta Ekintza Programak onartzeko.
4. Ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuak onartzeko, botoen gehiengoarekin hartutako erabakia beharko da, barne hartuta nahitaez Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lazkaoko Udalak Patronatuan dituzten ordezkariak (13.1 artikuluko a. eta b. ataletan aipatutakoak) alde emandako botoa.
5. Patronatuaren lehendakariak boto erabakigarria edo kalitatekoa izango du.
6. Patronatuak hartutako erabakiak Akta Liburuan jasoko dira. Bilera bakoitzaren akta lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute, eta erabaki guztiak jasoko ditu, bai eta bozketen emaitzak ere, boto partikularrak barne.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 7446220

23. artikulua.- Autokontratatzeko debekua.

Patronatuaren kideek ezingo dute kontraturik egin Fundazioarekin, ez beren izenean ez hirugarren batzuen izenean, Babeslaritzak hartarako baimena eman ezean.

IV. TITULUA. ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

24. artikulua.- Fundazioaren ondarea

Fundazioaren ondarea balorazio ekonomikoa izan dezaketen era guztietako ondasun eta eskubideek osatu ahal izango dute.

Fundazioak, bere diru erabilera eta administrazio egintzetan, ezargarri zaizkion arauak beteko ditu, eta lortutako fruitu edo errentak bere helburuetarako erabiliko ditu, betiere estatutu hauekin bat etorruta.

Ondarearen administrazioa eta erabilera Patronatuari dagozkio, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 1994ko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 17. artikuluan jarritako mugapenekin. Patronatuak eskumen horiek eskuordetzea erabakitzen badu, Euskal Herriko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da hori.

Fundazioaren ondarea hauek osatuko dute:

- a) Fundazioaren eraketa eskrituran jarritako dotazioa.
- b) Kide eratzailerak eta atxikien ohiko eta ohiz kanpoko ekarpen eta kuotak.
- c) Zuzenbideak onartutako bideen bidez, eta bereziki beste pertsona, erakunde edo instituzio batzuek emandako legatu, dohaintza, ekarpen eta diru laguntzen bidez aurrerantzean eskuratuko duen beste edozein ondasun edo eskubide. Dohaintza, legatu eta herentziak onartzea Babeslaritzaren jakinean jarri beharko da.
- d) Fundazioak egin ditzakeen jardueren eta hark duen ondareak emango dituzten fruitu nahiz errentak, produktuak nahiz etekinak, bai eta indarrean den legeriaren arabera eman ditzakeen zerbitzuetatik sortutako ordainsariak ere.
- e) Legezko ezarpen esparruaren baitako beste edozein baliabide.


25. artikulua.- Ondarearen aldaketak

Fundazioaren Patronatuak, edozein unetan eta behar adina aldiz, egoera ekonomikoak eskatzen duenaren arabera, egoki irizitako aldaketa, eraldaketa edo bihurketak egin ahal izango ditu Fundazioaren kapitalean, horiek, bere balio izenduna mantendu arren, bere benetako balioa edota erosteko ahalmena galdu ez dezan.

26. artikulua.- Fundazioaren ondarea zaintzea.

Fundazioaren ondarea zaindu eta gordetzeko, ondorengo arauak beteko dira:

- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideek Fundazioaren izenean egon beharko dute, eta haren inbentarioan jasoak, eta, hala badagokio, dagozkion erregistroetan inskribatuak.



- b) Ondasun higiezinak eta/edo eskubide errealak Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Inskribatu daitezkeen gainerako ondasunak dagozkion erregistroetan inskribatuko dira.
- c) Baloreak eta eskudirua, jabetza tituluak, gordailu ordezkagiriak, eta, jabaria, edukitza, erabilera nahiz gozamina eta Fundazioa titular den beste edozein edozein eskubide egiaztatze gainerako dokumentu guztiak Patronatuak izendatuko duen entitatean jarriko dira, Fundazioaren izenean.
- d) Gainerako ondasun higigarri guztiak Patronatuak zehaztuko duen eran gorde eta zainduko dira.

Ondasun eta eskubide horiek guztiak Inbentario Liburuan zehaztuko dira. Liburu hori Patronatuko idazkariak gordeko du, eta, beraren ikuskaritzapean, haiek identifikatzeko eta deskribatzeko behar diren inguruabarrak jasoko dira.

V. TITULUA. KUDEAKETA EKONOMIKOA

27. artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa

Ekitaldi ekonomikoa urtekoa izango da eta urte naturala hartuko du.

Lehenengo ekitaldi ekonomikoa Fundazioa eratzen den egunean hasiko da eta urte horretako abenduaren 31n bukatuko.

28. artikulua.- Aurrekontua

Fundazioak aurrekontu arrunta prestatuko du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, eta bertan jasoko dira diru sarrerak eta gastuak, era orekatuan.

Aurrekontu hori Babeslaritzari aurkeztuko zaio, onartzen den urtearen azken hiru hilekoan, azalpenak jasotzen dituen memoriarekin batera.

29. artikulua.- Ekonomia eta kontabilitate arloko betebeharrak

Patronatuak inbentarioa, egoera balantzea eta emaitzen kontua egingo ditu, eta horietan agertuko da Fundazioak ondare, ekonomia eta finantza arloan duen egoera, bai eta urte horretan egindako jardueren memoria ere, bai eta ondarearen kudeaketa ekonomikoarena ere, Fundazioaren helburuak eta legezko xedapenak bete direla jakinarazteko eta bidezkoetzeko adinakoa. Aurreko urteko diru sarrera eta gastuen aurrekontuaren likidazioa ere egingo du, legeetan xedatua dagoena betez horretarako.

30. artikulua.- Kontu ematea

Urte bakoitzaren lehenengo sei hilen barruan, Patronatuak Babeslaritzari ziurtatu beharko dio, Fundazioen Legeak 27. artikuluan aurreikusi bezala, kudeaketa Fundazioaren helburuen arabera burutu duela.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 7440221

31. artikulua.- Kontuen ikuskaritza

Fundación Benedictinos de Lazkao - Lazkaoko Beneditarren Fundazioak Fundazioen Legeko 28. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamenduko 26. artikuluan jasotako ekonomia garrantzia hartuko balu, kontuen kanpo ikuskaritza urtero egin diezaioten onartu beharko luke.

Kontu ikuskarien txostenak, gutxienez, ondorengo puntuak izan beharko ditu:

- a) Urteroko kontuak eta kontabilitatea aztertuz estatutuetan edota indarrean diren legeetan jasotako xedapenak betetzerakoan antzemandako arau-hausteen gaineko oharpenak.
- b) Antzemandako edozein gertaerari buruzko oharpenak, Fundazioaren finantza legerarentzat arriskua sortzen badute.
- c) Fundazioko gobernu organoko kideen autokontratazio kasurik dagoen edo ez.

Fundazioa kanpo ikuskaritza bat egitera behartuta dagoenean, ikuskariak emango duten txostena Babeslaritzan aurkeztu beharko da, aztertu beharreko kontuekin batera, Fundazioen Erregistroan gordailutu dadin.

32. artikulua.- Administrazioaren diru sarrera eta gastuen xedea

1. Fundazioaren diru sarrera eta errentak zuzenean eta berehala Fundazioaren helburuak betetzeari atxikitzen joko dira.
2. Fundazioak, aldizka-aldizka, bere zeregin dituen jarduerak programatuko ditu, eta, horretarako, urtero prestazioen planifikazioa egingo da, eta haiek egiteko eta esleitzeko modua erabakiko da.
3. Bere helburuak betetzeko, lortzen direnetik hasi eta hiru urteren buruan, edozein kontzeptutan lortzen diren errenta garbien eta gainerako diru sarreraren %70 erabiliko du, gutxienez, hain dagozkien zergak kenduta, hala badagokio.
4. Bai Fundazioaren eraketa unean bai gerora, ondare dotazio moduan egindako ekarpenak baldintza hori bete beharretik salbuetsiak daude.
5. Gainerako diru sarrerak Fundazioaren dotazioa gehitzeko erabili beharko dira, administrazio gastuen kerketa egin ondoren. Gastu horiek ezingo dute %20tik gorakoak izan, Babeslaritzak berariaz hartarako baimena eman ezean, Fundazioak egindako eskari arrazoituaren ondoren, indarrean diren legeko eta arauko xedapenetan aurreikusia dagoenaren arabera.

IV. TITULUA. ALDATZEA, BAT EGITEA ETA AMAITZEA

33. artikulua.- Aldatzea

Fundazioaren Patronatuak estatutu hauen aldaketa bultzatu ahal izango du, betiere Fundazioaren eraketa helburuak hobeto betetzeko komenigarria gertatuko balitz. Aldaketa egiteko erabakia Patronatuan hartu beharko da, 22.3.a) artikuluan aurreikusia dagoen aldeko botoarekin.



34. artikulua.- Bat egitea

Patronatuak beste entitate batekin edo batzuekin bat egitea ere erabaki ahal izango du, betiere behar bezala babesten baldin badira Fundazioaren eraketako helburuak. Aldaketa egiteko erabakia Patronatuan hartu beharko da, 22.3.b) artikuluan aurreikusia dagoen aldeko botoarekin.

35. artikulua.- Amaitzea

1. Fundazioa amaitu egingo da 1994ko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 33. artikuluan xedatutako baldintzetakoren bat gertatzen denean, bai eta Fundazioaren eraketan jarritako helburuak betetzea ezinezko egingo luketen arrazoiak gertatzen badira. Gainera, Fundazioa amaitzeko berariazko arrazoiak izango da Lazkaoko Beneditar elkarte desagertzea, desegin delako, tokiz aldatu delako edo antzeko beste zerbait gertatu delako.
2. Fundazioari amaiera emateko, hori egiteko arrazoiak leudekeenean, Patronatuaren erabakia beharko da, estatutu hauetako 22.3.b) artikuluan ezarritako aldeko botoarekin. Era berean, Patronatuak kitatzaileen izendapen proposamena ere onartuko du, bai eta jarduera programa eta kitapenetik sortutako produktua banatzeko proiektua ere.

36. artikulua.- Kitatzea

1994ko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 35.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kitapenetik sortutako ondasun eta eskubideen erabilera Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakiko du. Nolanahi ere, artxiboak osatzen dituzten agiriak Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtsak osatzera pasako dira, **Lazkaoko Beneditarren Fondoa** izenari eutsiz betiere. Ondasun higiezinak eta instalazioak Lazkaoko Udalera itzuliko dira. Funtsak, ahal dela, Lazkaon mantenduko dira, eta, nolanahi ere, Gipuzkoako lurralde historikoan.

VII. TITULUA. BABESLARITZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

37. artikulua.- Babeslaritza

Fundazio hau Babeslaritzaren zaintza, aholkularitza eta kontrolpean egongo da, indarrean diren legeetan aurreikusiak dauden terminoetan.

38. artikulua.- Fundazioen Erregistroa

Fundazio honen eraketa, bai eta legez inskribatzea eskatuko luketen Fundazioaren egintza eta negozio juridiko guztiak ere, Euskal Herriko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 7448222

Lehendakariak eta Foru Administrazioako Departamentua
Departamento de Presidencia y Administración Foral

Arubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Régimen Jurídico



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

EGINBIDEA.- Diputatuen Kontseiluko eta Udal Harremanetako Idazkaritza Zerbitzu burua naizen honek emana, adierazteko foru aldundi honetako Diputatuen Kontseiluak 2011ko urtarrilaren 11ko bileran onartu zuela Eranskin gisa eta behar bezala zigilatuta doazen 12 orrietan adierazitakoa.

DILIGENCIA.- La extiendo yo, la Jefe del Servicio de Secretaría del Consejo de Diputados y Relaciones Municipales, para hacer constar que el Consejo de Diputados de esta Excm. Diputación Foral en sesión de 11 de enero de 2011, prestó su aprobación al precedente Anexo, contenido en los 12 folios que le preceden, debidamente sellados.

Arantzazu Arana Learte
M^a Aranzazu Arana Learte.

